

BERRIGARA

91. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, urtarrilak 15

UDALAK
BERGARAKO 5
ELIZETAKO
ARTXIBOAK
MIKROFILMATU
EGINGO DITU
DONOSTIARA
ERAMAN
AURRETIK

**SAN
ANTON**
AUZOAN JAIK
IZANGO DIRA
ASTEBUKAERAN

KIROLAK

IGARTUA
BIGARREN
ESPAINIAKO
ZIKLO-KROSS
TXAPELKETAN
ETA
ITXAROPENTSU
MUNDIALARI
BEGIRA

ESKULANAK KULTUR ETXEAN



ALDASORO

Beherapenak!!

Jantzietan

Oinetakoetan

Poltsetan



LORAMENDI BIROLAK

Beherapenak

emakume
gizon eta
haurrentzako

ANORAK eta
PLUMIFEROAK



SKlan
parerik
gabeko
aukerak

Prezio
bereziak

SKlak konpontzeko TAILER BERRIA dugu!!


Maiatzaren 1a Plaza ARRASATE ☎ 79 97 24

BERGARA PIEL

CRISTINA

Espaloia, 6 ☎ 76 20 70
BERGARA

Arruriaga, z/g ☎ 76 03 04
BERGARA



**Izugarrizko
beherapenak!**

**Etzazu aukera
bikain hau
galdu**

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jauriaritza

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkoroberezibar

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Edurne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua: Inaki

Eraña, Gorka Elorza eta Alex
Labaien

Kolaboratzaileak: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkoroberezibar, J. M.
Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai,
Maripi Laskurain, N. Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi, M.
Elkoroberezibar, Aitziber
Aretxaga, Ainhoa Bikuña eta I.
Sorondo.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A.
Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
Garzia, D. Santos, P. Retolaza,
Kiñu eta Pol-Pol Mendizale
Taldea.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati)

Baneketa : Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek

Eusko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

PROTAGONISTAK

BEHERAPENAK

Gabonak amaitu eta herriko dendek eman diete hasiera urtarrileko beherapenei. Dendarien esanetan ez da beste urtetako mugimendua izan.

Erropa denda ezagun bateko jabeak adierazi digunez, "aurten ez dabil hainbeste jende. Nik uste dut kristiak bere eragina izan duela eta salmentetan ere nabari da beberakada. Hilabete luze batez mantenduko ditugu beherapenak eta ea gora egiten duten...". Beste batek zera esan digu: "aste honetan hasi gara beherapenekin eta eskasa



izan da jendearen erantzuna. Gabonetako azken egunetan oso ondo saldu genuen baina orain badirudi jendea beldur dela kristiarekin".

Krisiak, beraz, eragina izan omen du urtarrileko beherapenetan.

Salmenta txikiak krisiaren eraginez

ITURRI ONETIK

Arrizuriaga parkea geldi

Arrizuriaga parkea (Unzeta Ruiz de la Prada), Udaletxearen berriztapenarekin legealdiko egitasmorik garrantzitsuena (100 milioitako aurrekontua) oraingoz geldirik dago eta, beraz, ez da eraikiko hasieran markatutako epeetan (udara parterako bukatuta egon behar luke). Arazo ekonomikoak, alde batetik, eta Arau Subsidiarioak oraindik finkaturik ez egoteak bultzatu dute Hirigintza Batzordea erabaki hau hartzera.

ESAN DUTE

"Neretako benetako Paris-Dakar motordunak daukate, ze 200 kiloko motor batean hainbeste kilometro egiteak bai duela benetako meritua. Kotxean 2 lagun joaten dira eta beti laguntza haundia goa daukate".

AITOR ZABALETA
Auto gidaria
ETB

"Euskal administrazioa birmoldaketa eskutua egiten ari da, Euskal Herrian balio ez den nekazaritza eredu bat jarri nahi duelako. Proposamenak, kritikak eta sektorean era guztietako lanak aurrera ateratzen dituen sindikatua isildu nahi du".

BALENTIN GABILONDO
Gipuzkoako ENHEko presidentea
EGUNKARIA

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ONENA
TINDATEGIA
Barrenkale 29, BERGARA

ELKTRRO
ARENAZA C.B.
Montaje elektrikoak,
automatismoak, e.a.
San Lorentzo 19,
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43



LA CIUDAD DE LA ALEGRIA

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00., 19.30 eta 22.30.

Igandea: 17.00., 19.30. eta 22.15.

Astelehena: 19.30.



CAZAFANTASMAS II

Igandea: 11.30.



EL ACORAZADO POTEMKIN

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ Roland Joffé (*Los gritos del silencio*)
Dominique Lapierre-ren best-sellerra pantailaratzera ausartu zen eta hortarako Indian errodateje istilutsu bat jasan behar izan zuen urtebete luzez. **Patrick Swayze** dugu protagonista nagusia eta bertan mediku talde batek Calcutako behartuei ematen dieten laguntza kontatzen zaigu.

▼▼ Itxura batean New York hiria mamuez josita dago eta bada hor talde bat berauek garbitzera dedikatzen dena. Ez omen dira oso beldurgarriak eta barre egingo duzue **Dan Aykroyd**, **Sigourney Weaver** eta bere lagunekin.

▼▼ Zinearen historian klasiko bat bihurtu den filme bat dakarkigu oraingoan zineklubak. **Sergei Eisenstein** sobietarrak 1.925. urtean errodatuta, 1.905ean Potemkin untzian gertatutakoa azaltzen zaigu. 1.917.eko erboluzioa eta zine ona zer den ulertzeko ere erabili izan da.

Erakusketak

▼ **Jose Antonio Borobia** margolari bergararrak azken hila-betetan landutako 12 koadro ikusgai daude Nahikari tabernan otsailaren 13ra arte.

▼ **Beira-lanketari** buruzko ikastaroan parte hartu duten gazteen lanak Kultur Etxean urtarrilaren 19tik 24ra arte.

▼ **Narrastiak** Beheko Estazioan igandera arte, hilak 17. Arratsaldeko 5etatik 9etara. Larunbat eta igandean goizez ere bai.

Farmaziak

- ▼ **Larunbata 16:** Mozos/Ruiz (Arrasaten, gauz)
- ▼ **Igandea 17:** Mozos/Morales.
- ▼ **Astelehena 18:** Camacho/Azkoaga.
- ▼ **Asteartea 19:** Puy/Español.
- ▼ **Asteazkena 20:** Guallar/Corcuera.
- ▼ **Osteguna 21:** Estella/Trizar.
- ▼ **Ostirala 22:** Mozos/Ruiz.


Ogia

▼ **Igandea 17:** Konde.

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motorren bobinaketa
 - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea
 Tfnoa: 76 23 48



GAZTEEN MODA!

Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

Ikuskizunak

▼ **Anton Deunaren XII. Nazioarteko Krossa** igandean, hilak 17, San Antonen. Ondoren salda, lukainka eta ardoa banatuko dira eta erromeriaren hasiera.

▼ **Herri kirolak** San Antonen igandean eguerdiko 12.15 erdietan. Ondoren, ordubatetan, kaskara jokua, umeentzako jolasak eta txarri harrapatzea.

▼ **Herensugea eta hartza** haurrentzako bideoa larunbatean goizeko 11etan Kultur Etxean.

Aukeran

▼▼ **Eskulanen erakusketa** ikusgai egongo da Kultur Etxeko erakusgelan igandera arte, hilak 17. Bertan herriko hainbat artistek egindako lanak aurki ditzakezue. Larunbatean eta igandean, eguerdiko 12etatik ordubietara eta arratsaldeko 6etatik 8etara egongo da zabalik.



Kirolak

▼ Futbola:

• **Bergara-Lazkao** (Preferente maila). **Igandean** 15.45etan Ago-rrosinen.

• **Bergara-Zarautz** (Lehen mailako jubenila). **Igandean** 11.00etan Ipintzan.

• **Bergara-Ordizia** (Infantilak). **Larunbatean** 11.00etan Ipintzan.

▼ Saskibaloia:

• **Ibili Bergara-Calaborra** (senior gizonak). **Larunbatean** 18.30etan.

• **Bergara-Zahor B** (kadete neskak), **igandean** 10.30etan.

▼ Eskubaloia:

• **Bergara-Urrietako** (kadete neskak), larunbatean 16.00etan.

▼ Futbitoa:

• **Futbito Txapelketa** astebukaeran Kiroldegian.

5

PROFESIONALAK

• Soroa III.a eta Oregi / Arteaga-Andueza

• Etxaniz eta Galarza III.a / Eugi eta Zezeaga.

• Gabilondo eta Garaita / Badiola II.a eta Buenetxea.

Larunbatean,
16.00etan Udala
Pelotalekuan.


FERNANDEZ



Oihal puskak
Oihalak

San Antonio 3
Tfnoa: 76 22 93

Ibargarai 2
Tfnoa: 76 53 22

 **IZADI**
Sanitiveri PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua
Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34

IMI gela itxita

Alkate jauna:

Zuk jasotzen duzun informazioa IMI gelari buruz, gestore kulturalaren bitartez izaten da, eta honen iritzia ikusita (Berrigara 87 zka), beste iritzia bat ezagutzea ez zaizu gaizki etorriko.

IMI gela jende askok erabiltzen du egunero, bere betebeharrak pertsonal nahiz profesionalak aurrera eramateko, informatika beharrezkoa da eta gaur egun eta jende gehienak ez dauka PCrik etxean, ezta dirurik ere hori erosteko (bere programak, etab.).

Egia da IMI gela mantentzea garestia dela, baina gauza asko dira garestiak (Igerilekuak, Udaletxea bera...), hala ere beharrezkoak. Eta aprobetxatu nahi izan ezker beti dago aukerarik, hor dago IMI goizero itxita, zergatik ez duzue aprobetxatzen ikasleak eramateko? (Igerilekuak bezala), edo kurtsoak emateko edo inguruko enpresa txikiei laguntzeko, edo...

Egia da materiala azkar zahartzen dela, baina momentuan dagoen materiala nahiko berria da (gehiena), eta hurrengo bost urteetan, behintzat, beren lana betetzeko moduan egongo dira. Aurten ixten baldin baduzue zerbitzu hori zer gertatuko da material honekin?

Kontutan hartu Bergaran ikasle, langabetu eta profesional txiki asko garelako eta gure aukera bakarra informatika erabiltzeko hauxe dela, eta informatika jakitea oinarritzkoa izango dela hemen-

dik gutxira.

I. I.

N. A. N.: 15. 374. 609

Bergararrei

Urtarrilaren 5eko Kabalgataren aurretik joan ziren zenbait gaztek banatu zituzten panfletoak direla eta, Bergarako Kultur Taldeak, Jaiak eta Gazteria eta Taldeen Batzordeak ondorengo hauek jakinerazi nahi dizkie herritarrei:

1.- Errregeetako Kabalgata, herritarrrongan eta batez ere hurrengan, ilusioa sortzen duen kultur iharduera da, eta sortarazten duen ikusminaz baliatuz beren eritzi politikoak kaleratzen dituztenak ez dira kultur iharduerarik ezaz protesta egiteko egokienak. Beharbada, horregatik utziko zuten manifestazioa zenbait gaztek, aurrez erabakitakoari kasurik egin gabe edukin politikoa zuten pankartak atera zirenean; izan ere "Jai-giroko kalejira" batetarako deia egin bait zen hasieran.

2.- Udalak planteatu izan zaizkion kultur iharduera guztiak bultzatu izan ditu eta "koloretako argitxoekin bete digutela herria, diru honekin kultur ekitaldiz herria bete genezakeenean" diotenei ere horixe bera gogoratzen diegu: planteatu ditzatela dituzten asmoak eta Udalaren lankidetzan bilatzen badute lortuko dutela.

3.- Uste dugu "koloretako argitxoek"

Gabon jaiak abegitsuago bihurtzen dituztela eta egunoi tradizio-kutsu bat ematen dietela. Hala ere, geu ere ados gaude diru horrekin eta pintadak, kartelak eta pankartak kentzen gastatzen denarekin kultur iharduera pila bat antolatu ahal izango litzatekeela.

4.- Kultur Taldeak, Jaiak eta Gazteria Batzordeak asteartero egiten dituzten bilerak, arratsaldeko 7etatik aurrera Kultur Etxean eta beti izan da irekia. Bertan parte hartu eta jaiak zein kultur iharduerak antolatzen lagundu nahi duenak zabal-zabalik ditu ateak.


5.- Txoznei eta Txapari buruzkoak, horretan zer gertatu den jakin nahi izan dutenek jo dute dagoeneko Udaletxera eta eman zaizkie hartutako erabakiei buruzko azalpen guztiak eta une honetan ere irtenbideak bilatzen ari gara, nahiz eta zenbaitetan ezin izaten diren lortu, guk nahi izango genituzkeen bezala. Izan ere arazoei irtenbideak emateko, alde guztien laguntza behar izaten da.

6.- Azkenik, gure eskerrik broenak adierazi nahi dizkiegu Bizarzuriren agerraldian ete Erregeen Kabalgatan parte hartu zuten guztiei, eta baita Batzorde honekin eta Udalarekin lankidetzan jardun ohi duten guztiei ere.

Bergaran, 1993ko urtarrilaren 12an.

Kultur Taldeak, Jaiak eta Gazteria Batzordea.

Tiira ba!



Josu Okino



Herriko eliz-liburuak mikrofilmatzeko hitzarmena sinatu da

Astelehen goizean Jose Maria Madina Donostiako Elizbarrutiko Gotzai Bikarioak eta Luis Abajo kultur zinegotziak (alkatea ordezkatzuz) Bergarako eliz-liburuen mikrofilmaketa burutzeko hitzarmena sinatu zuten Kultur Etxean. Hitzarmen honen arabera, Udalak Bergarako 5 elizetan diren artxiiboak mikrofilmatu eta kopia banarekin geratuko da, artxiiboak Donostiako Elizbarrutiaren esku geratuko direlarik.

Lan honek 850.000 pta. inguruko aurrekontua du eta Arantzazu Oregi Udal Artxiboko arduradunaren esanetan, "bertan, besteak beste, XVI. mendetik gaur egunerako datu demografikoak, jatotza, ezkontza, heriotzak, orduko harremanak edota obra eta



arte aldetik oso interesgarriak izan daitezkeen datuak aurki ditzakegu. Behin Udalaren esku daudenean, edozein ikerketetarako ere erabili ahal izango dira".

Jose Maria Madinak adierazi zuenez, mikrofilmaketa Gipuzkoako herri guztietan burutu da dagoeneko eta Bergarako da Donostiara era-

mateko falta den bakarra. Bere hitzetan, "guztiak batera Donostian edukitzea interesgarria da, informazio bateratua denon esku egoteko".

Sinatze ekitaldian Jose Maria Eguren eta Xabier Zubizarreta parrokoak eta Andoni Larrañaga kultur zinegotzia ere izan ziren.

□ Jubilatua

Jubilatuaren Egoitzak hilaren 20an Donostiako tanborrada ikustera joateko irteera antolatu du. Irteera 9 terdietan izango da Frontoitik, 12etan haurren tanborrada izango da eta ondoren, 13.45etan, bazkaria Errenteriako Egoitzan. Irteerak 1.500 pta. balioko du eta izena lehen bait lehen emateko eskatzen da.

□ Euskaltegia

Bergarako Udal Euskaltegiak euskalduntze eta alfabetatze taldeetan hutsik dauden plazak betetzeko deialdia egin du. Izena emateko Bidekurutzeta 27, 2. pisura edota 76 44 53 telefono zenbakira jo dezakezue urtarrilaren 20tik 28ra.

Beira lantzen ikasten

Joan den urteko Heziketa Okupazionalako programaren barne, Udalak 18 urtetik gorako langabetuentzat antolatutako beira-lanketari buruzko ikastaroa bukatutzat eman dute gaur ostirala 10 gaztek. Irailetik egunero 5 orduko lan ariketak egiten aritu dira Felix Urrezolaren ardurapean eta datorren asteartetik, hilak 19, urtarrilak 24ra arte ikasle hauek egin dituzten lanen erakusketa ikusgai izango duzue Kultur Etxean. batipat, ate eta leihoetan burutu dituzten apainketa lan dotoreak ikusteko aukera izango dugu.



ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

KIZKUR



Ileapaindegia
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



□ **Zozketa**

Etxeberria erlojudenda eta bitxitegiak Gabonetan egindako erosketa boletoen zozketan 7.332 zenbakia suertatu da irabazlea. Kontxi Kortazarrek, zenbakiaren jabea zenez, eskuratu du 300.000 pta.ko saria. Horrez gain, aurreko zein ondorengo zenbakiak izateagatik, beste 100.000 pta. jaso ditu.

□ **Bideoa**

JARDUN Elkarteak hamabostean behingo larunbatetan haurrentzako bideo emanaldiak ematen jarraituko du. Larunbat honetan, hilak 16, "*Herensugea eta hartza*" ikusteko aukera izango duzue goizeko 11etan Kultur Etxean. Sarrerak 25 pta. balioko du eta albuma betetzen duten guztiei sariak emango zaizkie.



Amodiozko gutunak

Amodiozko Gutunen 1. Berrigara Lehiaketa konbokatuta du Berrigara astekariak. Lehiaketa honetan 1.978an edota lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte eta lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz izan beharko dira. Lanek gutun forma izan beharko dute eta DIN A-4 orrietan eskuz zein makinaz idatzi ahal izango dira (bi orri alde gehienera jota).

Lanak aurkezteko epea otsailaren 14ean, San Valentín egunean amaituko da eta honako helbide honetara bidali beharko dira: Amodiozko

Gutunen I. Lehiaketa. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia, 20.570 BERGARA. Lanean lema bat jarriko da eta egilearen datuak lema bereko beste sobre batean joango dira. Berrigararen 100. alearen kaleratzearekin batera banatuko dira sariak: lehenak 100.000 pta. eskuratuko ditu, 50.000 bigarrenak eta 25.000 bergarar onenak. Epaimahaia literatura eta kultura munduko pertsona ezagunek osatuko dute eta lan guztiak Berrigaren esku geratuko dira, argitaratzeko eskubidea izango duelarik.

Kartel lehiaketa

Udaleko Jai Batzordeak Aratuzterako eta Pentekoste jaietarako kartel lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetan Bergarako edozein lagunek parte hartu ahal izango du. Ondorengo baldintza hauek kontutan hartuz: kartel bakoitzaren neurria 50x35 zm.koa izango da, kolore eta teknika librean erabili ahal izango dira, Aratuztetako kartelean "Bergarako Aratuzteak 1.993" eta jaietakoan "Bergara 1.993 Pentekoste jaiak" izango dira derrigorrezko testuak eta aurkezteko epea otsailaren 14an itxiko da Kultur Etxean. Epaimahaia jai giroa hartuko du kontutan eta bietan irabazleak 50.000 pta.ko saria eskuratuko du. Epaimahaia Jai Batzordeak izendatuko du.


Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

ORTZI
ERRETEGIA

ANGIOZAR ☎ 76 22 68



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



San Antonabat jaietan

San Anton jaiak ospatuko dira larunbatean eta igandean, hilak 16 eta 17. Jai Batzordeak prestatutako programaren arabera, larunbatean eguerdiko 12etan txapligu eta suz-karraberaren botatzea izango da, ordubatean txikiteoa auzoan zehar eta arratsaldeko 4retan VII. Nazioarteko Tute eta Mus Txapelketa jokatu da Zubiberri Sagardotegian, izen-ematea (1.000 pta. bikote bakoitzak) ordubete lehenago itxiko delarik. Ondoren, 6etan, txapligu eta suz-karraberak eta 7etan txikiteoa eta sari banaketak. Ggaueko

9etan afari herrikoia izango da Zubiberri.

Igandean, San Anton eguna, 8etan txapligu botatzea eta kanpai iraulpena egingo da, 9 terdian auzoko anaidearen bilera iragarri da, 10 terdian San Anton baselizara ohizko igoera eta eliztarren eskeintza, Meza Nagusia 11etan eta 12etan Nazioarteko XII. Krossa jokatu da, ondoren salda, lukainka eta ardoa banatuz. 12 terdian Eusko Kirolak izango dira, ordubatean jokuak eta ordubietan txikiteoa eta sari banaketa.

Txinpartak

✓ **6.372** zenbakiak irabazi du Institutuko sariketako lehen saria, 7.075 zenbakiaren jabeak bigarrena eskuratuko du.

✓ **9.581** zenbakiak mendiko bizikleta bat irabazi du Lokatza Ziklismo Eskolako sariketan. Hilabate barru sariduna agertuko ez balitz, 16.599 zenbakiak eskuratuko luke saria.

✓ **Bergarako Amnistiaren Aldeko Komiteak** eskerrak eman nahi dizkie herriko tabernari eta dendariei Gabon hauetan euskal preso, errefuxiatu eta deportatuei emandako diru laguntzagatik.

✓ **Benito Cantero** Pol-Pol Argazki Taldeko kideak 2. saria eta bi akzesit eskuratu zituen Asturiaseko Infiesto herrian jokaturako Estatu mailako Mendiko Diapositiba Lehiaketan.

✓ **Jose Luis Feori** Argazki Bidez izeneko zirkuituan zegokion hirugarren sariaren ordezkari Benito Canterok bigarrena lortu zuela aipatu genuen, akats batengatik, 90. alean.

✓ **Migel Anjel Askasibar "Aska"** epaitu dute gaur ostirala Madrileko Auzitegi Nazionalean.



**ILEAPAINDEGI MISTOA
ESTILISTA.**

Artekale 29. Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA

**SURPE
Taberna**

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8

Tfnoa: 76 28 67

BERGARA

Don Pedro Garitanoren heriotza gogoratuz

Joan zitzaigun 1992a eta berarekin batera herriko pertsonairik ospetsu eta maitatuenetarikoa, Don Pedro apaiza. Antonio Urzelai, Don Pedroekin harreman hestua izan zituenak, hitz batzuk idatzi ditu, gainerik bada ere, Don Pedoren bizitzari buruz.



Don Pedro apaiz ordenatu zeneko argazkia. 1927.

Bukatu den azkenengo urteak, gertaera mingarri hauxe ekarri zigun:

Don Pedro, Santa Marinako koadjuntore, elizgizon zintzo eta arduratsua, zoritxarrezko istripu baten ondorioz, hil egin da.

1.899.eko lorailaren (maiatza) 19an jaio zen Aringuen (Zubieta kalean), eta hil ere, bizileku berean, 1992ko abenduaren 23an.

Hamabi urte zituelarik ikasle joan zen, Orduña-

ko J. S.en konbentura. Hamalarekin aldatu zen Comillasera. Hemen bukatu zituen apez ikasketak. Eta, 1927ko abenduaren 8an (Kontzeziño egunean) eman zuen meza Santa Marina parrokiari.

Apez lanetarako lehen helbidea edo destinoa, La Calera (Bizkaiko Karranza inguruan) izeneko herri txikia izan zen. Han hiru urte bete ondoren, 1930eko ekainean etorri zen Bergarako Santa Marina parrokiara,

gainontzeko urteak betetzera.

Don Pedoren gizatasuna eta jokabideak nolakoak izan diren bera ezagutu zuen bakoitzak daki. Oxirondotarrek batipat, 62 urtetan zehar izan dituzten harremanak direla medio, badute zer esanik asko, apez honen portaerari buruz. Hamaitxoko elizkide agurtu zuen azken orduan itxaropen beterik.

Bestalde, herrikoitasun ekintza bereziak ere, gai askotara hurbiltzen

zituen bere zer eginak. Urteetako ezaguerak kontutan izanik, Agiritegiko istorio zaharrak ereskia ziezazkiokeen, borondaterik haundienarekin emango zizkizulakotan.

Azken agurra ematerakoan, Bergarako herriak garbi erakutsi zion Don Pedrori, eskerrik gabea. Santa Marinako eliza, gainezka zen beraren hileta ospakizunetan.

G. B.

Antonio Urzelai

BERGARA

Karrozeria

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31

Zubieta 46
Bergara

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK

LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, BERGARA

LARRAÑAGA
eta **ZUBIA**

Banatzailak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

SAGARPE

Herriko elkarterik zaharrenetarikoa

Beraien laguntza eskatu asmoz inguratu ginen Sagarpera eta han aurkitu genituen, mahai-inguruan jarrita eta afaria prest zutelarik. Dena dela, Simon Arrieta eta Miguel Okinaren kuadro ederrez inguraturik, afaria ahaztu eta informazioa barra-barra botatzen hasi ziren, lehendakaria den Rafa Agiriano eta juntako beste guztiak: Angel Borobia, Alberto Odriozola, Luis Eraña, Marcial Moreno eta Luis Maria Ugarte.

Sagarpe elkarteak 1948.eko urrian zabaldu zituen lehen aldiz bere ateak. Orduan Artekale 20.ean zegoen kokatua, eta 38 bazkide biltzen ziren bertan. Hauen helburua, Bergaran betidanik hain sustraitze haundia izan duten adierazpen artistiko interesgarriak, eta batez ere musika korala bultzatzea izan zen. Beraz, helburu interesgarria benetan elkarte ho-

na.

1961. urtean lokalez aldatu zuten, Barrenkale 15.era pasatuz. 130 bazkide dira gaur egunean, sartzeko zain beste 10 daudelarik. 38 fundatzaileetatik, zoritxarrez, 14k bakarrik jarraitzen dute elkartearen. Bazkide guzti hauen batzbesteko adina 50 urtetakoa da.

Elkarte honek badu berezitasun bat bere barne arautegietan: jubilatuek 4 izan daitezke bakarrik. Lau hauek, ez dute kuotarik ordaintzen eta elkartearen zerbitzu guztiak erabiltzeko eskubidea dute. Lau hauetatik kanpo, beste guztiak ordura



Jose Gorrotxategi eta Felix Berraondo, Sagarpeko bazkideak.

arte bezala jarraitzen dute. Eta hiltzen denean, famili tarteko batek du aukera bere ordezkoa hartzeko.

Bestalde, emakumezkoak ez dira onartzen bazkide izateko. Elkartearen egoteko sarrera libre daukate, nahiz eta ezin diren sukaldaria sartu.

Diruak

1.800.000 pzta. batzen da hilero kuotak kontatu barik. Nahiz eta batzen den kaja urtean-urtean goraka joan, hau prezioen igoerarengatik da, kontsumoa berdintsu mantentzen baita urtero.

Proiektuen artean, sukalde eta elkartearen orokorrean berrizteko asmoa azaldu ziguten.

Sagarpekoa dugu ETBn lehen saria irabazi zuen Jose Gorrotxategi sukaldaria. Bere berezitasuna, bildotsa gertatzea.

Ainboa Lete

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1948.eko urrian.

BAZKIDEAK: 130.

HELBIDEA: Barrenkale 15.

PRESIDENTEA: Rafa Agiriano

ELKARTEAREN EGUNA: Aberri Eguna

URTEKO KUOTA: 12.000 pzta.

Aldoka Maldoka

Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80
76 06 37



LILURA

EDERTZE
INSTITUTUA

Bidekurutzeta, 7

☎ 76 31 71
BERGARA

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

Eskulanak: pazientzia eta irudimena batzen direnean

Bergarako Kultur Etxean azken astean eskulangintza erakusketa ikusteko aukera izan dugu. Eskulan ugari egon dira ikusgai (larru lanak, zur tailak, itsasontzien modelagintza, brontzezko lanak, makilak) aurkeztutako lanak benetan politik izan dira, baina lan bakoitzaren atzetik bere egilea dago eta hauek ezagutzeko honako erreportaia. Erakusketa igandean amaitzen da eta oraindik badaukazue aukera artista hauen lana ikusteko.

Erakusketan egon diren 11 artistetatik 8rekin egon gara berrikeretan eta bakoitzak bere esperientzia kontatu digu. **Alejandro Azkaratek** zura-rekin edo beste material batzuekin lana egiteko afizioa betidanik izan du. Berak aurkeztutako lanak ezberdinak dira: oesteko gurdi bat, Agarreko garaxearen erreproduktzioa eta beste gauza bitxi eta lan askokoak. Mota honetako lanek denbora eta arreta handia eskatzen dute eta berak hau argi uzten du: *"Agarreko garaxe eskuz egin dut, dena enkajatu egin behar izan dut, hau egiteko ez dut puntapaitzik erabili eta"*.

Ascensio Esnaolak erakusketa honetarako oleoan egindako errielebeak aurkeztu ditu, bere lanbidea tailak egitea da eta tailak egiteko eskola ere antolatu du: *"zabalotegin astean bi ordu ematen ditut eta gazteei gauzak erakusteko prest nago"*. Ascensio etxeak berriztatzeko lanetan aritu da eta kultur etxea berriztatzeko proiektua ere

berak egindakoa da.

Natura tailatzen

Jabier Otxoaren lanak bereziak dira, bere lanak egiteko mendian aurkitzen dituen egur, sustrai e. a.ak erabiltzen

ditu: *"mendian zehar nabileanean niretzat interesa eduki dezaketen gauzak batu eta etxera eramaten ditut eta han pentsatzen dut gauza horiekin zer egin"*.

Bere lana ikusita argi ikusten da bere ideiak oso

bitxiak direla zuhaitz sustraiak lanpara edo beste edozein gauza bihurtzen bait ditu.

Gonzalo Inclanek zura lantzen du, erakusketarako bi kutxa, argixola bat, erloju bat eta termometro bat ekarri ditu. Gonzalok zura tailatzeko material ezberdinak erabiltzen ditu eta orain Kultur Ekintzak zabalotegin dituen lokaletan egiten du lan: *"baina gure lanak hobeto egiteko lokal handiagoak behar ditugu eta ondo da honelako erakusketak egitea jendeak tailaren munda ezagutzeko"*.

HIESarentzako makilak

Jabier Otxoak makilak egiten ditu: *"nik gaztetatik daukat makilak egiteko grina, makilak egiteko grina familiarik datorrit, niretzat makilak esanabi garrantzitsua du eta gehiago esango dizut nire lagun eta familiako guztiek makila bana dute"*.

Makila egiteko material ezberdinak erabiltzen ditu, gorostia, arantza zuria eta beltza, sagar silbestrea. Jabierrek erakusketan aurkeztutako makila sorta debalde eman nahi dio edozein erakunderi beraiek sal ditzaten gero bere makilen truke batutako dirua HIESaren aurka borroka egiten duten erakundeek erabiltzeko.



Xasio Amasorrain, J. L. Lete eta Gabriel Agirre

Kalabozoko lanak

Gabriel Agirre erakusketara aurkeztu direnen arteko gazteena da, bere lanak betiko euskal tailan oinarrituta daude. Berak aurkeztutako lanak ezberdinak dira: kutzak, auspoak, koadroak. Lan hauek egiteko hainbat material erabili ditu, baina gehien erabiltzen dituenak gaztainonondoa eta haritza dira.

Gabriel 12 urtetatik ari da taila lanen artean "orain seminarioan haurtzaindegia dagoen lekuan hasi nintzen taila ikasten, orain 35 urte ditut eta oraindik eskulangintza munduan gogoz jarraitzen dut". Berak aurkeztutako lanetan bi kuadro daude soldadutzako kalabozoan egindakoak: "normalean



Alejandro Azkarate, Jabier Otxoa, Gonzalo Inclan eta Ascensio Esnaola

tailak egiterakoan betiko formak erabiltzen ditut, baina bi hauek guztiz ezberdinak egin nituen".

Xaxio Amasorrainek aurkeztutako lanek ez dute besteekin zerikusirik: "nik taila ez dut lan-

tzen lan bat egin baino lehen ideia bat margotzen dut eta gero margotik eskulturarara pasatzen dut. Nire lana eskultura da eta hori interpretatzeko eskulturak duen hizkuntza propioa

menperatu behar da".

Zazpi hauen eta baita Celestino Vicente, J. I. Igartua, Josuren Murgizu eta Sebastian Gonzalezen lanak Kultur Etxean dituzue ikusgai igandea bitartean

BERGARA

UDAL

EUSKALTEGIA

BIDEKURUTZETA, 27
TEL. 76 44 53

**EUSKALDUNTZE
eta ALFABETATZE
taldeetan hutsik
dauden plazak
betetzeko deialdia.**

IZENEMATEA

Bidekurutzeta, 27 2.a

☎ 76 44 53

EPEA

Urtarrilak

20 - 28

ORDUTEGIA

14.30 - 18.30



APPÉnit.

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**


Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

**TOKI-EDER
Taberna**

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

I
Z
O
Z
K
I
A
K



I
Z
O
Z
K
I
A
K

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

Non erosten dituzu erropak normalean?



Miren Rodriguez
30 urte, farmazialaria

Jeneralean Ordizian edo Donostian. Beherapenetan gutxitan erosten dut.



Jesus Maria Macho
34 urte, langilea

Bergaran eta Donostian. Beherapenetara? Noizean behin, gauza interesgarririk badago..



Xabier Lijo
26 urte, langilea

Normalean *Discoplay* edota *Tipo* bitartez erosten dut. Hemen noizean behin prakak eta beherapenetan zapatillak.



Sara Larrañaga
33 urte, dendaria

Gehienetan Bergaran eta Eibarren. Gasteizen ere bai... Beherapenak baino deskontuak gustatzen zaizkit gehiago.



KIKAUNDI O. E.
DENBORA LIBREKO TALDEA

San Martin plaza, 4 2.
☎ 76 05 17 BERGARA

LUDOTEKA
(Astelehenetik ostriralera)

ORDUTEGIA:

- 17.30 - 18.30 (Eskolaurre 1etik OHO 2ra arte)
- 18.30 - 19.30 (OHO 3tik OHO 6ra arte)

KUOTAK:

- Urtarrila-otsaila-martxo-a-apirila: 500 pzta.


**LARUNBATETAKO
EKINTZAK**

ORDUTEGIA:

- Goizez: 10.00 - 13.00
- Arratsaldez: 16.00 - 19.00

KUOTAK:

- Urtarrila-otsaila-martxo-a-apirila: 2.500 pzta.



S. I., X. X. eta abarrak.


Artisten lanei beren gremiokoek erasotzea moda bihurtu zaigu azken aldian. Antza denez, bai estetikaren aldetiko edo bestelako (erakundeen faboritismoak, Agiñako txoritxoaren defentsa, etab.) desadostasun larriak daude. Erasotzaileen eritziz protesta egin beharra dute. Ederto.

Beren buruak nabarmenarazteko darabilten metodoari dagokionez, ez dut uste dudarik dagoenik, "oker dabilta". Baina guztiok era horretako okerrak egingo bagenitu hemen ez litzateke aieririk ere geratuko. Eta zenbait okerrekin izen argia dute: delitua.

Baina, zein da delitu horren zigorra, zeren eta delituak zigortu egiten baitira. Bada, komuikabideei esker Euskadiko pertsonarik ezagunenak bihurtzea! "Hitzegin dezatela nitaz, nahiz eta txarto esanka jardun" zioen harako esaldi hura arte-munduan indarrean dago oraindik. Ez ote dabilta saritzen?; banketxe batean lapurreta egiten dutenean, errudunak A.L., eta J.M. izan ohi dira, droga-trafikatzailea B.I. etab. etab. Baina, jakina, arautegia.

Erakundeen zenbait iharduera (artearen, hirigintzaren, zein naturaren aldetik edozein ikuspegi estetiko izanda ere) negargarriak dira eta hala ere ez da horregatik inon oihurik entzuten. Ibarrola, Oteiza, etab. en kasu honetan, ordea, inguruko luma guztiak martxan jarri dira. Garbi dago informazioa eman beharra dagoela, baina ez ote litzateke hobe kasu "gehiegirik" ez egitea? Ez al da delinkuentzia arazo bat? Ez al dago epaitegirik? Nori egiten dio mesede gaia etengabe ahotan erabiltzeak?

Abdon Juaristi



"Autodefenditzea"

"Ustez kulturaren aurkakoak" diren ekintza hauen arrazoia nahiko garbi egon daiteke behintzat kasuren batetan, batez ere kontutan hartuta egileak berak, lñurrietak, aitortu duela berak bota zuela eskultura.

Artista asko gara erakundeen kultur politikarekin bat ez gatozenak, eta hori izan omen da lñurrietaren ekintzaren arrazoia.

Eta kontua da zenbaitek etengabe diharduela erakundeen aurka eta horiek ekintza honekin ados agertu direla. Horietakoa da, adibidez, Oteiza, besteak beste Ibarrolari hiriguneak okupatu izana leporatu diona.


Baina beranduago, Oteiza bera izan da antzeko erasoia jasan duena, honako honetan itxurazko mezu ekologista batekin eta izenik agertu gabe. Azpiazuri leporatu dio gertatutakoa eta tristura haundiz, erretiratzeko mehatxu egiten du. Kasu honetan erasoia higuigarri zaio.

Horrek adierazten du, erasoia egiten duena edo jasaten duena, bat hala bestea izan, gauza oso modu desberdinean neurtzen direla. Garbi dagoena da emaitza hauxe baino ez dela: zenbait obra betirako hondatu dira edo nekez konpondu ahal izango dira. Eta arrazoiak alde batera utziaz, esan beharra dut nik erakundeetan aldaketa gutxi nabaritzen dudala eta triskantzak begi bistan daudela.

Nik neuk inoiz ez nuke artelan bat hondatuko eta esan beharra dago kasu honetan lan horiek ez zutela inola ere mezu negatiborik eta lanek ez dutela "autodefentsarik".

Bingen de Pedro

ARREGUI, E.M.



AROSZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

IRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia

San Pedro 11
☎ 76 51 65



Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

P. MANSO

OPTIKA

OPTIKOA, OPTOMETRISTA

Irizar Ibilbidea 2, tfnoa: 76 27 86

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ARREGI

Eraikuntza materialeak

Biltegia Teilerian, Tfnoa: 76 27 93
Labegaraita Auzoa

AGIRREBEÑA

Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

LAKET

Gizon Emakume

Barrenkale 35 BERGARA

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

URRATS
Kafetegia

Ibargarai Tfnoa: 76 52 92
BERGARA



□ Kirol sariak

Udal Kirol Zerbitzuak eta Berrigara astekariak antolatutako Kirol Sariak lehiaketaren sari-ematea izan zen Gabonetan Kultur Etxean. 200 boto inguru heldu ziren gure erredakziora eta argazkian dituzuenak izan ziren irabazleak: **Iñigo Gallastegi** (kirolaririk onena), **Iban Rodriguez** (etorkizunik onenekoak), **Lokatza Ziklismo Eskola** (kirol talderik onena), **Iñigo Igartua** (goi mailako kirolaririk onena) eta **Enrique San Nicolas** (sari berezia atletismo bergararraren alde egindako lanagatik). Horrez gain, boto emaleen artean zozketatutako Kirol Zerbitzuko karneta **Eneko Tabuenkak** eskuratu zuen eta Bartzelonarako bidaia, berriz, **Ione Telleriarentzat** izan zen. Bidaiekin jarriatuz, aipatu, iaz bezala, **Amaia Arantzabalek** irabazi zuela finalisten artean zozketatutako Lisboarako bidaia.



□ Urrezko eztaiak

Benita Egia eta **Julian Arriaran** bergararrek ezkondu zireneko urrezko eztaiak ospatu zituzten larunbatean, urtarrilak 9. Julian eta Benitak beren senitartekoekin igaro nahi izan zuten egun berezi hori eta eguerdian meza entzun ondoren bazkaltzeko bildu ziren guztiak, izan dituzten 3 seme-alabak eta 3 ilobak tartean. ZORIONAK bioi eta segi horrela!

LONBIDE

OINETAKOAK

BIDEKURUTZETA 5

☎ 76 10 57

BERGARA



□ **Komiki Lehiaketa**

JARDUN Elkarteak antolatutako Komiki Lehiaketaren sari banaketa ere egin zen Gabonetan. Guztira 50 lan aurkeztu ziren eta honako hauek izan genituen sarituak: lehen taldean (O.H.O.ko 6., 7. eta 8 mailakoentzat) **Iban Garziak** irabazi zuen lehen saria Maratoi Olimpikoa lanarekin, **Xabier Eskibel** eta **Gorka Alberdi** 2. geratu



ziren (Zeroak ez!) eta hirugarren saria **Kepa Etxebarria** eta **Lander Juaristik** irabazi zuten (Drogak eta Joxe). 2. taldean (14-18 urte) lehen saria eta 3.a eman gabe geratu ziren eta **Iñaki Larrañagak** hirugarrena jaso zuen (Surangilo, Surangilo beti ezin da jan da lo). Eta azkenik, 18 urtetik gorakoetan **Haritz Larrinaga** eta **Iban Astondoak** irabazi zuten (Lurpeko iratxoak), **Bittor Rodriguez** bigarren izan genuen (komunaren sorkuntza) eta **Alexander Ugalde** izan zen hirugarren (Ion Hartz).




□ **Alga garaile**

Alga Usaindegiak irabazi zuen Kultur Zerbitzuak Gabonetan antolatutako II. Eskaparate Lehiaketa eta **Luis Abajo** Kultur zinegotziak plaka oroigarria eta 100.000 pta.ko txeketa entregatu zion **Eduarne Sarasketa** Algako jabeari. M2 Errotuloak bigarren saria (50.000 pta.) eskuratu zuen eta Garnish bitxitegiak hirugarrena (25.000). Zorionak guztie!!


Zertan dibardute ba?

AINHOA AGIRREAZALDEGI



15 urteko neskatxa honek Arrasateko AED Elkarteak antolatutako literatur lehiaketan akzesita lortu zuen bertso-paperean ertaineko kategorian "*Bart izan dudan ametsa*" lanagatik.

BEISTEGI ETA ARANGUREN



Aritz Beistegi eta Aritz Aranguren 19 urteko bergarrek Donostiako Maria Cristina hotelean afari bat eta gau bat igarotzea irabazi zuten ETBn astelehenean emititutako "*Primeran*" saioan.

anezka

Udazkenerako oihalak eta lenzeria

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25

GANBARA

Berezitasunak: Pintxoak eta kafea kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

**T
B
E
R
N
A**

Gracian

Usaindegia • Merzeria

Beherapenak!!

Bidekurutzeta, 6 ☎ 76 10 25 BERGARA

Urte berriarekin batera, sail berri bat aurkezten dizuegu Berrigarán. Orain arte orrialde honetan agertzen zen "Antzinako kontuak" atalari amaiera eman eta beste berri bati ekin diogu. Orain dela 20-25 urte Bergaran notizia izan ziren berriak bildu eta astero-astero bat edo bi gogoratuko ditugu. Notiziak, orduko periodikoetan eta "Zeruko argia" astekarían herriko berriemateek idatzitakoak izango dira. Josune Iñarra, Ane Miren Goenaga eta Asier Madinabeitia kolaboratzaileak, albiste horiek hemerrotekatatik biltzen ari dira dagoeneko. Bestalde, aste honetan agertzen ez bada ere, hurrengoetan "Umore giroan" atalarekin jarraituko dugu.

Urretxindorrak, orain dela 20 urteko argazkian.



Urretxindorrak berriz kantura.

Soldaduzka eta abarreatatik hiru bat urte geldirik eman ondoren, euskal kantagintzako talde famatua berriz itzuliko da eszenatokietara. Joan den astelehenean hasi ziren entsaiatzen eta laster grabatuko dute disko berri bat.

Lehen goberberak dira taldeko partaideak, Raul, Gotzon, Juan Mari eta Julio, baina estilo berriz etorriko zaizkigu. (Entrebista luzea dator ondoren).

La Voz. J. L. Bikuña. 1973-1-18.

Trenbideari eusteko dirulaguntza eskatuko.

Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza, Antzuola eta Gatzagak udal agintariak urgentziazko bilera egin dute eta erabaki dute denek batera Ferrocarriles Vascongados elkarteari eskatzea mantendu ditzala bai trenbidea eta baita Mekolaldetik Eskoriatzara bitarteko zerbitzua ere. Eskari hori egiteko asmoz gaur, hilak 12 bilduko dira Madrilen Jose Antonio Gericabeitia, Ferrocarriles Vascongados-eko zuzendariarekin Don Luis Laskurain Bergarako alkate eta probintziako diputatu jauna, Jose Manuel Azcoaga Arasateko alkate jauna eta Reyes Corcostegi Oñatiko alkate jauna. Arrasateko udaleko idazkaria ere bertan izango da.

La Voz. J. L. Bikuña. 1968-1-12.


ORAIN DELA 20-25 URTE...

IRUBIDE

Taberna

Bazkariak, gosariak, afariak, etab.

Urteaga 9, Tfnoa: 76 25 67



Barrenkale 31

Gaspar

Jatetxea, Txokolategia, Self Service-a

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58

BERGARA


GOIERRI

Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA



LIERNI BELDARRAINek jaso du aste honetan HERRAN ETXEAK emandako saria.



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16

Hurrengo Galde Debaldeko saria ZUBIKUA JANTZIDENDAK emango du.


Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Kaleak ezagutze horretan Bidekurutzeta kalea eta Ibargarai etorbidea elkartzen dituzten hiru kale daude, behar bada hiru horietatik ezagunena Ramon Maria Lili kalea da, Bidekurutzetatik beheko estazinora doana.


Aste honetako galdera hauxe duzue,

Zeintzu dira Bidekurutzetatik Ibargaira zuzenean joateko dauden hiru kaleen izenak?



izena
abizena
telefonoa


OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



Zumelaga


JATETXEA

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

LIERNI BELDARRAIN

Zabalotegi baserri etxeak ehundaka urteren buruan oraindik zutik dirau. R. Oiarzabal kalean dagoen baserri-etxea Bergaran harriz egin zen lehenengoa dugu. Hori zen, aurreko GALDE DEBALDEN eskatzen genizuen erantzuna.


LIERNI BELDARRAIN suertatu da aste honetako irabazlea. **ZORIONAK !!**

Eta besteok segi asmatzen, bila dabilena topatu egiten du eta! Animo!!

HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4. 76 37 53



**Elektragailuak, TB,
bideoak, HIFI
aparailuak.**

Matxiategi, 3. 76 12 22



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16

□ **Tenisa**

Asteartean, hilak 19, hasiera emango zaio urteko lehen tenis ikastaroari Kiroldegian. Klaseak astearte eta ostegunetan arratsaldeko 7 terdian izango dira eta 10 orduko ikastaroa izango da. Interesatuak Udala Kirol Zerbitzuak Irizar Jauregian duen bulegora jo dezakete.

□ **Igeri ikastaroa**

Igeri ikastaroak ere iragarri ditu Udala Kirol Zerbitzuak. Urtariletik ekainera bitartean izango dira maila ezberdinetako ikastaroak eta derrigorrezkoa izango da Kirol Zerbitzuko bazkide izatea. Informazio gehiago nahi izanez gero, Udala Kirol Zerbitzuan eskura dezakezue.

Iñigo Igartua "Fuerte nago baina arerioak ere inoiz baino indartsuago"

Iñigo Igartua (Lotus Festina) bergarar txirrindularia, Gipuzkoa eta Euskadiko txapelak eskuratu ondoren, 2. postuarekin konformatu behar izan zen igandean Porriñon (Galizia) jokatuak Espainiako Afizionatuen Ziklo-Kross Txapelketan.



- Pozik burutzen ari zaren denboraldiarekin Iñigo?

- Gipuzkoa eta Euskadiko txapelak lortu ondoren, nere helburua Espainiako txapelketa lortzea zen. Ez zen posible izan eta aurrera egin behar...

- Joan den urtearekin konparatuz, preparazio diferentea darazazu aurten...

- Nik uste dut nahiko antzerakoa dela. Aldatu den gauza bakarra iaz atzerrian denbora gehiagoein nuela litzateke eta orduan horrek aurten irteeretan falta zaidan azkartasuna eman zidan. Aurten forma eta indar aldetik hobeto nago baina azkartasun hori falta zait, besterik ez.

- Eta emaitza aldetik ba al dago diferentzia-

rik?

- Iaz gaurko fetxan 7 garaipen neramatzen eta aurten berriz 5. Zarautzeko proban iaz 6. izan nintzen eta aurten 8., Beljikkako karreran postua hobetu dut... Nere burua hobeto ikusten dut baina beste batzuk, Mujika eta Plak adibidez, bere maila asko hobetu dutela.

- Corva Bassanoko mundialari begira zer asmo daukazu?

- Ilusiño haundia daukat. Igual aurten iaz baino indar gehiagorekin helduko naiz eta trankilago, presiño barik korrituko dut.

- Ondoren, zer?

- Superprestijioko karrera bat korrituko dut eta amaitzeko beste internazional bat. Mountain Bike probatuko dut ondoren eta gero karreteran ibiliko naiz.

Boleibol txapelketa


Aloña Mendi taldeak irabazi zuen Udala Kirol Zerbitzuak antolatu eta Gabonetan jokatu zen boleibol txapelketa. Guztira, 16 taldek hartu zuten parte eta txapelketa kanporaketa erara jokatu zen Kiroldegian. Pasa den astean jokatuak finalean Aloña Mendi 3 eta 0 nagusitu zitzaion Shaktale taldeari (argazkian) eta P.C. Gallegok hirugarren postua eskuratu zuen Altos Pornosi 3 eta 0 irabaziz. Txapelak trofeo eta afaria irabazi zuten, Shaktalek trofeoa eta kamisetak eta P.C. Gallegok ere trofeo bat eskuratu zuen.



CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA



JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95





Sagarpe elkartearen zilarrezko eztaiak

Aste honetan "Bergarako elkarteak" atalean Sagarpe elkarteari eskeini diogu orrialdea. Hori dela eta, Erretratu Zaharrean ere Sagarpe sortu zeneko 25. urtea bete zen egunean ateratako argazkia azaltzen dugu. 1.968ko erretratuan, elkarteko bazkide guztiak agertzen dira, tartean aulki batean jarrita agertzen den Bonifacio Laskurain txistularia, elkarteko Ohorezko Bazkidea. Honako hauek dituzue guztien izenak:

1. ilaran: Jose M. Uribesalgo, Victoriano Gallastegi, Bonifacio Laskurain, Alberto Lonbide, Jose Gorrotxategi eta Juan M. Aspiazu.

2. ilaran: Cecilio Garitano, Julian Elkoroberezibar, Felipe Gallastegi, Jose Iturbe, Pedro Narbaiza, Imanol Aspiazu, Juan Etxaniz, Evaristo Mazorriaga, Juan Jose Arrieta, Juan Larrañaga, German Balanzategi, Ignacio Arriola, Jose Altuna, Felix Onaindia, Julio Retegi, Jose Gonzalez, Luis Mari Ugarte, Jose Kalboetxeaga, Dionisio Bolibar, Martin Guridi, Felix Bilbao, Doroteo Beiztegi eta Pedro Romaratezabala.

Estepan Plazaola



ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

ETXEBIZITZA

Ganbarak hustu eta garbitzen ditugu.
☎ 76 82 17.

Neska bat behar da **Donostian pisua konpartitze**ko. ☎ 76 19 299.

Bergaran herriaren erdialdean **ileapaindegia** alokatzen da. ☎ 76 16 17.

Harrizurin garajea salgai. ☎ 74 30 55/ 74 43 19

Jacan etxe bat alokatzen da. ☎ 76 07 60. Begoña. (gauzez).

Artekalen **pisua salgai** ☎ 76 55 63. Gauzez.

Garajea salgai Santa Marinaran. ☎ 76 32 70.

Garajea salgai Martokuan. Erosoa. ☎ 76 46 95.

Pisu amueblatua alokatzen da Bergara erdian. ☎ 12 12 71.

Etxea alokatzen da San Antonion ☎ 76 21 39.

Pisua salgai Artzamendin muebleekin edo mueble gabe. ☎ 76 40 82 (6etatik aurrera).

Pisua salgai Martokuan. 80 metro karratu. ☎ 76 14 13 (gauzez)

Garaje bikoitza alokairuan Burdiñaten. ☎ 76 57 69/76 13 23.

Garajea salgai Torrekuian. ☎ 76 16 51.

SALDU-EROSI

Kanowey moto bat salgai (49.9 zm3). Egoera onean (90.000 pta.). ☎ 76 12 99.

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 35 50 (gauzez) edota 79 82 10 (egunez).

Skiko botak erosiko nituzke. 38 zenbakikoak. ☎ 76 18 78 (Maite).

Oinarrizko Heziketa Orokorra, U.B.I., B.B.B. eta Lanbide Heziketako **klase partikularrak** ematen ditut. ☎ 76 44 34 (Amaia)

SS-4252-P matrikuladun Ford Scort 1.600 kotxea salgai. ☎ 76 50 18.

Eskiko Koflach-Valuga botak erosiko nituzke. ☎ 76 05 92 (Jose Angel).

Ileapaindegi eta estetika aparailuak salgai. Egoera onean. ☎ 76 32 12.

Bateria klaseak ematen dira. ☎ 76 54 74 (Aitor).

OPEL CORSA Gsi 1.6i SS-AJ kotxea salgai. ☎ 76 63 18/76 44 53.

3 metro luzeerako **mahaia salgai**. ☎ 76 06 97.

Peavy 100 watts bi anpli salgai. Biak 100.000 pezetatatan (bat 60.000). ☎ 76 10 34.

Garbigailua oparitzen dut. ☎ 76 03 73.

Lau MSX joku salgai. ☎ 76 59 47 (David).

Peugeot 205 XL bat salgai. 6 urte SS-W. ☎ (945) 27 92 73 (arratsaldez) / 76 05 23 (gauzez).

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 32 51.

Softwaredun **2.400 BPS modema salgai**. Berri-berria. Prezioa interesgarria. ☎ 76 51 62.

LANA

Etxeko lanak egin edota **denda baten** lan egingo nuke. ☎ 75 24 47.

Neska batek **etxeko lanak** egin eta **umeak** zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

Emakumezko batek **haurrak** zaindu eta **etxeko lanak** egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Etxeko lanak egin eta **umeak** zainduko lituzke neska batek ☎ 76 07 26 (Amaia).

Edozein motatako **lanak** makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Neska batek **etxeko lanak** egin edota **umeak** zainduko lituzke. ☎ 76 60 65 .

Hildakoak

Carmen Torres Ezpeleta. abenduak 24, 75 urte
Carmen Elorza Aranzabal. abenduak 28, 56 urte
Rafael Aguayo Luna. abenduak 31, 63 urte
Maria Bernas Zumelaga. urtarrilak 3, 82 urte
Juana Iturricastillo. urtarrilak 3, 81 urte
Fulgencio Moreno Cuadrado. urtarrilak 3, 85 urte
Antonto Fernandez Perez. urtarrilak 6, 67 urte
Marcelino Alcantara. urtarrilak 8, 65 urte
Victor Lazpiur Ganboa. urtarrilak 8, 77 urte
Blas Lopez de Aretxaga. urtarrilak 13, 85 urte

Jaiotakoak

Amaia Bolinaga Gantxegi abenduak 26
Leire Balanzategi Curado abenduak 29
Enara Alberdi Abasolo abenduak 29

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

OILAGORRA

Taberna

Barrenkale 21, BERGARA


HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



FAGOR 

SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO
GARANTIA

TEMPRA STADIO



ERAKUSKETA:
Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:
Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi **FIAT**

ZERBITZU OFIZIALA